

Ipuiñtxua

TXERRENBASOA

Olazarreta'ko aldian euan leku bat ezagututen zana TXERRENBASOA izenez.

Joanitzanian lenengo aldi baserri aretara entzuneben bertakuen artian TERRENBASO aren edesti billdurgarri bat. Leku aretara ez zan joaten inor beinbe.

¿Zer gaitik?- itaunditenitzan: itaunebenian baten bateri erantzuten eben: "Obeto ez jakitia"

– Baña, ¿zer gaitik?- berriz itaunen.

– Oraindaño ara joandianak, bizirik urtenebeñak, geratu dia buruaz erreta-lez, oñak okertuta, erdi edo guttiz zoratuta.

Baña atzenian jakineben, agura batetik, Txerrenbasoko beste edesti bat. Olazarretako beste erri aldian- iseneko Erriotza- igesten ebein lapurrak eskututen zian baso aretan, ta orregaitik isaten ebein baserrikuak "txerrenak". Ondik dator mendi orren izena.

– Baña aguriak jarraitu eben orren ondoren, zelan bein-baten etorritzala Saspibai erriko apaiz bat Olazarretara, apaiz gaste bat, guttiz biotza, ta oneri, jakin alaz bazerri artian ezaten ebena TXERRENBASO ondoren, zartu zakon buruan, berak ezagutubiar ebela zen zan leku aren egi-egia. Orretan, baten bat bildurtuta apaiz gazte on aren asmoas esan eutsan:

– Jaun: Ona izango da jakin eizun, baso ori dagola lapurren ekuetan. An zartzen dana galduta da. Ta guretzat, beorren bizitza dago danen ta danan gañetik.

Apaiz gazteak erantzun eutsan: "Ikustendot esatendozuenetz nai dozula onena neretzat. Baña nik eginberdot eginberdotena danen gañetik.

Bazerrikoak guttiz larrituzian apaizen erantzunaz.

Onelan ba, beste egunian goiz-goizean joan zan TXERRENMENDIRA.

Esan ta egiñ dana zan bat. Apaiz gazte a zartu zan TXERRENMENDIAN, ibillten inguru nekezetan ordu bat baño geiago, ta zartuta euanain, ikusi eben gizon bat jazarrita zugatz baten, gero, beste zugatz baten euan beste gizon bat, ta orrelan euzeiñ zugatz bakotzian gizonak beari begira. Ikuzi alaz an goian, zugatzetan, danairi, apaiz gasteak esan eban:

– ¡Anaiak, Nere anai maiteak! Ona etorri naiz, naizelako lenengo ta danen gañetik, zuen anaia.

– Nik dakot zuek dakozena: Biotz on ta aundi bat. danok bardin gara. Anai onak lez gertu lagunduteko gure artian.

– Ni nator Goikuen izenian. Gizonen artian inok ez dost agindu etorteko ona. Emen nago zuen anaia naizelako, ta zuen aldian nere biotza postatunez beteta dagolako.

Basoko gizon areik entzuten ebein apaiz gaztiak esaten ebena, itxaiten eusein zelan izango zan azkena.

– ¡Nere anai maiteak!: Egun on ta aundi onetan ekinlezekegu inok ez dabena egiñ: Jaso, emen, mendi erdian, etxe bat, Goikuen izenean. Onelan ikusiko dabe ludi guztian zelan anaitasunaz ta gizonen bardintasunaz, egiñ lezken ludiko gustien zorion aundiarena.

– Ekiteko, danon gogo ona dago aurretik, ta alabe bierdogu batu aldana jazoteka emen Goikuen etxea. Orretarako ekartendot nere kapelia, batzeko, bakoitzak emun lezkena.

Ta, orretan, emun eutsan aldian euan gizonari kapelia, onek bestiari, ta orrelan kapelia eruanzan eskutatik eskuari, atzenian elduteko apaizen eskuetara, baña UTZIK, txanpon bat barik.

Apaiz gazte arek ikusi ebenian kapelia elduzala - UTZIK- bere eskutara, ipiñi zan belaubiko ta arpegia ta besoak goraldara, esan eben:

– ¡Ezkarrik Asko Jauna, kapelia nere eskuetara eldulako!

– ¡Ezkarrik Asko, nere anai maiteak, ikusten dotelako zuen biotz aundi ta ona.

Amaitu zanian batzar a "anaiartian" apaizak urten eben TXERRENBASO'tik, ta elduzan Olazarreta-ko bazerri erdira; ango bazerriarrak ezin zinistubiar ikusten ebeña: Apaiza euela bizirik egonda gero TXERRENBASO barruan.

Itaundu eutzanian baten batek zer euan ta zelan zan barruan TXERRENBASO-a, esan eben:

– Ikusi dot, Goikoa an be dauela. Nere zinismena aunditu da, Orregaitik nago guttiz pozik!

Orreaño, agure arek esaneustana TXERRENBASO'en ondoren.

ONTZATEGITXU

CARACAS. VENEZUELA

Ipuin au dago idaztita Bizkaiko antxiñako euskerean.

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ